

POBREZIA ETA UZKURTZE EPISTEMIKOA

UNAI BAYON ARANBURU

Ikerketaren ardatzak

AHALMENEN IKUSPEGIA

Amartya Sen eta Martha Nussbaumek garatutako ikuspegia. Horrek ongizatea/pobrezia eta askatasuna subjektu batek bere ingurunean gara ditzakeen **ahalmenen** arabera neurtzen du, pobrezia dimentsio epistemikoan bereziki ikertzeko aukera emanez. Hala, pobrezia ahalmengabezia litzateke.

KAPITALISMO KOGNITIBOA

Kapitalismo kognitiboan ezagutza, informazioa eta sormena dira ustiapen-baliabide nagusiak. Ondorioz, gaitasun epistemiko, kognitibo edo intelektualak bazterketa-tresna garrantzitsu ere bilakatu dira.

INJUSTIZIA EPISTEMIKOA

Miranda Frickerrek proposatutako kontzeptua. Ezagutza eta ulermenarekin zerikusia duen injustizia da. Bi motatakoak izan daitezke: batetik, subjektuaren sinesgarritasuna bidegabeki murrizten duen **testigantza-injustizia** eta, bestetik, norbere esperientzia sozialaren azalpen eta ulermenaren desitxuraketa edo ulergaitasuna eragiten duen **injustizia hermeneutikoa**. Bi injustizia horien atzean aurreiritzi identitario negatibo batek operatzen du beti.

JENDEA NOLA 'EGITEN' DA SOZIALKI?

Sally Haslanger filosofoaren estrukturalismoak aurreiritzien jatorria giza egiturek sortzen dituzten erregularitasunetan kokatzen ditu: gizarte egiturek 'jendea egin' egiten dute. Horien artean, errealak diren **ahultasun epistemikoak** sortu ditzakete, adibidez, pobrezia kasuan, subjektuaren gaitasun eta kompetentziak kaltetu ditzake. Dinamika horiek **bukle** amaigabe baten itxura dute eta eurek sortutako produktuan auto-justifikatzen dira.

MUINA: PUNTU ITSUA AGERIAN

Pobreziak ahalmengarapena urratzen du eta bertako dinamikek ahulezia epistemikoak sor ditzakete. Hala, bidegabeki sortutako ahulezia horiek ebaluatzerako orduan -lan elkarrizketa bat, adibidez- gerta daiteke ez egotea inongo aurreiritzirik edo identitate auzirik operatzen -demagun algoritmo batek ebaluatzen dituela kompetentziak-. Kasu horietan, nahiz eta "objektiboki" ebaluatu, ez da kontuan hartzen pobretuek haragitzen dituzten ahulezia horien jatorri bidegabea. Ez al daude uzurtze epistemikoa pairatu duten horiek **desabantaila** bidegabea? Ez al da dimentsio epistemikoa duen **injustizia**?

Orain arteko literaturak, aldiz, ez du auzi hau kontuan hartzen, ez baitago aurreiritzirik operatzen eta aurreiritzien zentraltasun horrek puntu itsua sortzen du. Ondorioz, teoria horiek ezin dituzte azaldu horrelako bidegabekeriak, funtsezkoak direnak **justizia epistemikoari** dagokionez.



IKERKETAREN HIPOTESIA

Egungo kapitalismo kognitiboan pobrezia-inguruneetan gertatzen den ahalmengarapenaren uzurdura geroz eta garrantzia handiagoa duen fenomeno da. **Uzkurtze epistemikoa**ren ondorio kaltegarriak eta pobrezia kronifikazioa bortizki indartzen dira amaierarik ez duten bukletan dinamiken bidez. Pobrezia-inguruneek oinarritzeko ahalmengarapena oztopatzen dute, besteak beste, gaitasun kognitiboak, linguistikoak eta komunikazio-gaitasunekin lotuak daudenak. Fenomeno hori kontuan hartu beharrek da ezagutzaren rol politiko eta soziala ikertzen duen filosofiarentzat, izan ere, orain arteko ikerketek **aurreiritzien** bidez azaltzen dute identitate zapalduen posizio epistemiko eta sozialean gertatzen diren hainbat bidegabekeria. Aldiz, uzurtze epistemikoak literatura filosofikoan dagoen puntu itsua azaleratzen du, erakutsiz aurreiritzi eta identitateetatik haratago egon daitezkeela epistemikoak diren bidegabekeriak. Horiek ahultasun epistemikoak sor ditzakete, injustizia epistemikoen antzeko kalteak edo okerragoak izan daitezkeenak eraginez eta, gainera dinamika ,ikusezinagoak dira.